

MATERIALISMO HISTERIKOA

Saldu



UXUE APAOLAZA LARREA

Maiatzaren 25ean Aberriaren Eguna izan zen. Argentinan. Bere aberria izugarri maite duen presidentea dute orain han, eta munduan barrena dabil hango berri emanaz. Pasa zen Espainiatik ere, “Europa Viva 2024” enkontru satanikora joateko. Barregura ematen zuten haiek, izua sortzen digute orain, asko ari baitira aginte makilak eskuratzen, eta horiekin, hainbat herrialdetako milioika pertsonaren patuak.

Hauteskundetako momentu batean, eroegi, espantuka, Milei baztertuko zutela zirudien sistemako indarrek; baina ez zen hori, zen Macrismoak irentsi zuela pixkanaka, antisistematzat saltzen zena, sistemarentzat bitamina baino ez zela bai baitzekiten. Milei presidente egin eta ministerioak bantzen hasita, Macriren jendea eseri zen nagusietan, segurtasunean, kasu, aurkari izan zuen Bullrich, eta ekonomian, Luis Caputo. Ekonomia zen Mileiren diskurtsoa ardatzen zuena, ekonomia zen bere indargunea, ekonomia aldatzera zetorren, denek nahiko zuten Argentinan inbertitu bera jarritakoan. Eta deuseztatzera zetorren politika tradizionalako gizon bat jarri diote ministerioan, bera ikuskizunak ematen ari den bitartean, gaixo onkologikoei botikak kentzen, jantokiei janaria... Soberan zegoena kentzen, alegia, jendea, alegia, pobreak.

Entzuten dituzue orain Argentinako gobernukideak? Enpresariekin ia haserre dabilta, ez dutenez inbertitzen. Munduan zehar Argentinaren dohainak saltzen ibilita ere, ez dute inbertsiorik lortzen. Ezta bertakoekin ere. Zer izango da.

Macrik gobernatu zuen lehen ere. Eta badakigu zer egin zuen. Herrialdea saldu. Ez besterik. Aberriaren egunean traidore batek hartu zuen mikrofonoa, Mileik, jakinda, jakin gabe, berriro herrialdea saltzera datorrena. Nork nahi du Argentina erosi. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Sexu erasoak

2016an bi emakumek bortxatuak izan zirela salatu zuten, Iruñean. 2018an auzia artxibatu zuten eta ez zen epaiketarik egin. Espainiako Poliziak, Fiskaltzak eta Nafarroako Auzitegiak ikerketan egindako irregulartasunak salatu ditu biktimen abokatuak. Ikerketako polizietako bat bortxaketaz akusatutako gizonetako baten koinatua da.

Armak

Arma nuklear taktikoak erabiltzeko prest dagoela adierazi du maiatzaren 21ean Errusiako Defentsa ministerioak, zehaztuz “Mendebaldeko arduradun batzuen mehatxuei” bideraturiko erantzuna dela. Oraingoan, arma nuklear taktikoak ez dira inoiz erabiliak izan, hain zuzen, suntsiketa gaitasun ikaragarriatik.

Palestina

Palestinako Estatuak errekonozituko dutela iragarri dute Espainiako Estatuak, Norvegiak eta Irlandak Maiatzaren 28an hartuko dute neurria ofizialki. 1967 aurretiko mugak aitortu dizkiote Palestinari, eta bi estatuen konponbidearen alde lerratu dira. Israelek esan du erabakiak terrorismoa saritzen duela.